



San Jose Lopezeko bitartekariak

SJLn urteak dira Bitartekarien dinamika martxan dutela. Jon Oyartzabal eta Andoni Albisu Bitartekarietako bi dira. Beraiekin elkartu gara egiten dutenaren berri jasotzeko.

Zer da Bitartekaria?

J: Gure inguruan Euskara Planeko ordezkariak gara esan dezakegu. SJLko sail bakoitzean "Bitartekari" bat gaude. Gure inguruan euskararen erabilera areagotzeko helburuak adostu eta horiek aurrera eramatea da gure egitekoa.



Zehazki zer egiten duzue?

A: Urte hasieran teknikariarekin elkartu eta urte horretan egin dezakeguna adosten dugu. Ondoren, urtean zehar ekintza horiek gauzatu eta jarraipena egiten dugu.

J: Kalitatean berriz, hizkuntza irizpideen jarraipena barne auditorian sartzea da aurtengo helburuetako bat.

Zenbat Bitartekari zarete?

A: 12 bat izango gara.

Denok batera elkartzea zaila den arren, urtean behin gutxienez, Bitartekari guztiok elkartzen ahalegintzen gara. Elkarren berri izan, inguruan egin duguna elkarri azaldu eta denon artean SJLko helburu edo behar orokorrak adosteko.

Zein dira SJLko behar orokor horiek?

J: SJL garraio enpresa bat da, hainbat herrialdetako bezero eta gidariekin lan egiten dugu. Gure bulegoetan hizkuntza bat baino gehiago entzutea oso ohikoa da; frantsesa, gaztelania, bulgaria, errumaniera... hizkuntza horien artean euskarari ere bere lekua eskaintzea da beharretako bat. Gure arteko komunikazioa indartzea ere azken urtean esku-artean dugun helburuetako bat da.



Don-Boscoko ikasleek praktikak egingo dituzte sei enpresatan

Aurten zazpigarren urtez praktikak euskaraz egiten ari dira Don Bosco Lanbide Heziketako Institutuko hainbat ikasle.

Oarsoaldeko Euskara Batzordearen bitartez, eskualdeko udalek “Lantokiko Praktikak Euskaraz” egitasmoari eustea erabaki dute beste ikasturte batez.

Oarsoaldeko lau udalentsat berebiziko garrantzia dute lantokiko praktikek. Batetik, euskaraz egindako lanbide ikasketei, lan-mundurako jauzian, azken erremate eta, euren iritziz, hizkuntzari dagokionez, erabakigarrienean, euskaraz jarraitzeko aukera bermatzen dielako. Bestetik, berriz, euskarari lantokietarako sarbidea modu naturalean egiteko aukera paregabea eskaintzen diotelako.



Oarsoaldeko Euskara Batzordeak lan hori Ahize-AEK Aholkularitza etxearen laguntzaz egiten du. Aurten enpresa berri bat sartu da egitasmoan eta lehendik zegoen bat itxi egin dute. Honenbestez, 10 enpresa dira praktikak euskaraz egiteko aukera eskaintzen dutenak (seik hartu dituzte aurten ikasleak) eta praktikak euskaraz egiten ari diren ikasleak, berriz, 12 dira.

1. Papresa SA, Erreterria
2. Easo Motor SA, Oiartzun
3. Lurauto-Gipauto SA, Oiartzun
4. Asea Brown Boveri Niessen, SA, Oiartzun
5. IDK Elektronika, Erreterria
6. Dardarak SL, Erreterria

Joan zen martxoaren 8an eta 14an ekin zioten ikasleek praktika aldiari eta ekainaren erdialdera arte jardungo dute horretan.

Eskualdeko udalen bulkadari esker, alde behintzat, lantokiko praktikak euskaraz egitearen garrantziaz geroz eta eragile gehiago ari dira ohartzen. Zentzu horretan hainbat ekimen gauzatu dira HETELeK eta IKASLANek Ekinbai elkarteak sortu ondotik; Gipuzkoako Lanbide Heziketako ikastetxeen artean praktika aldiari buruz egindako ikerketa batetik, eta Lanpres izeneko datu-bilketarako aplikatiboan euskararen aldagaia sartu izana, bestetik. Oraindik bide luzea bada ere, gaiaren estrategikotasuna nabarmentzen ari delakoan dira eskualdeko udalak.

Oharra:

Olakaria itxuraz aldatzera goaz, egunerokoarekin askoz ere gaurkotuago eta arinagoa izango da.

Enpresen beharrei eta erritmoari egokituagoa etorriko zaigu hemendik aurrera, aldian-aldian forma eta tamaina berrituta.